

3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2017-2020 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

3.1.- Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

3.1.1. taula.- NDF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak
Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2017	2018	2019	2020
BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)				
Mundu osoa / Total mundial	3,8	3,6	3,2	3,5
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	2,4	2,2	1,9	1,7
Estatu Batuak / Estados Unidos	2,2	2,9	2,6	1,9
Japonia / Japón	1,9	0,8	0,9	0,4
Erresuma Batua / Reino Unido	1,8	1,4	1,3	1,4
Eurogunea / Zona euro	2,4	1,9	1,3	1,6
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak/Países en desarrollo y mercados emergentes	4,8	4,5	4,1	4,7
KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	1,7	2,0	1,6	2,0
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak /Países en desarrollo y mercados emergentes	4,3	4,8	4,8	4,7
MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)				
COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)	5,5	3,7	2,5	3,7

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF)
Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI)

Hazkunde mundialak apala izaten jarraitzen du. Estatu Batuak arantzelak oraindik gehiago igo ditu Txinako inportazio batzuen gainean, eta Txinak erantzun du Estatu Batuetako inportazio azpitalde baten arantzelak igoz. Ekaineko G-20ren gailuarren ondoren, lortu zen neurri hauek gehiago ez handitzea. Teknologiako horniduren kate mundialek Estatu Batuek zehapen gehiago jartzearen arriskua jasan zuten. Bestalde, Brexitarekin zerikusia duen ziurgabetasunak hor jarraitzen du oraindik, eta tentsio geopolitiko gero eta handiagoek energiaren prezioari eragin diote.

Testuinguru honetan, 2019rako % 3,2ko hazkunde bat aurreikusten da, eta 2020rako %

3.- PREVISIONES ECONÓMICAS

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2017-2020 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

3.1.- FMI

El crecimiento mundial sigue siendo moderado. Estados Unidos ha incrementado aún más los aranceles sobre ciertas importaciones chinas y China ha respondido elevando los aranceles de un subconjunto de importaciones de Estados Unidos. Tras la cumbre del G-20celebrada en junio se evitó una nueva escalada de estas medidas. Las cadenas mundiales de suministro de tecnología se vieron amenazadas por la posibilidad de que Estados Unidos imponga sanciones, no se ha disipado la incertidumbre relacionada con el brexit y las crecientes tensiones geopolíticas han alterado los precios de la energía.

En este contexto, se pronostica un crecimiento de 3,2% para 2019, con un repunte a 3,5% en



3,5eko igoera bat izango da. BPGri buruzko aurtengo datuek, inflazioaren moderazio orokor bati gehituta, jarduera mundiala uste baino ahulagoa izango dela diote. Kontsumo Luzeko Ondasunen inbertsioa eta demanda moderatuak izan dira ekonomia aurreratuetan eta garapen bidean diren merkatuetan, enpresek eta etxeek epe luzeko gastua atzeratzen jarraitzen baitute. Ondorioz, munduko merkataritzak, zeina trinkoa baita makinariari eta kontsumo luzeko ondasunetan, ahula izaten jarraitzen du. 2020rako proiektatu den hazkunde urria da, eta adierazten du garapen bidean eta garapenean dauden merkatuetako ekonomiak egonkortu egingo direla, merkataritza politiken inguruko auziek tentsioak eta aurrerapenak dituztenez gero.

Pronostikorako arriskuek beheko joera dute nagusiki, eta merkataritzaren eta teknologia arloko tentsio berriak dakartza, inbertsioari kalte egingo diotenak; arriskuaren aurkako jarrera luze bat, interes tasa baxuko zenbait urteren ondoren pilatzen joan diren ahultasun finantzarioak agerian utziko dituenak; eta desinflazioko presioak trinkotzea, zorraren zerbitzurako zailtasunak larrituko dituztenak, desazelerazioei aurre egiteko politika monetarioaren tarte murriztuko dutenak eta kontrako shockak ohi baino gehiago luzatuko dituztenak.

Politikaren neurriak, dela harreman aldeaniztunetan dela maila nazionalean ezinbestekoak dira hazkunde mundiala sendotzeko. Berehala egin beharrekoak dira merkataritza eta teknologia tentsioak murriztea eta atzerapenik gabe merkataritza akordioei buruzko zalantzak argitzea (besteak beste, Erresuma Batuen eta Europar Batasunaren arteko akordioa eta Kanadak, Mexikok eta Estatu Batuek sinatutako merkataritza libreko zonaldea). Zehazki, herrialdeek ez dituzte arantzelak jarri behar aldebiko merkataritza balantzan eragiteko edo elkarriketak ordeztuko besteari presio egiteko erreformak egin ditzan. Azken demanda eta inflazioa maila moderatuetan daude, eta, ondorioz, ekonomia aurreratuetan egokia da politika monetario moldakor bat; garapen bidean eta garapenean dauden ekonomietan, berriz, itxaropenak murriztuagoak daude. Politika fiskalak zenbat helburu orekatu behar ditu: demanda arindu, hala behar denean; ahulak babestu; hazkunde potentziala indartu egiturazko erreformen aldeko gastuarekin; eta finantza publikoen jasangarritasuna bermatu epe ertainera.

2020. Los datos sobre el PIB en lo que va del año, sumados a una moderación general de la inflación, apuntan a una actividad mundial más débil de lo previsto. La inversión y la demanda de bienes de consumo duraderos han sido moderadas en las economías avanzadas y de mercados emergentes, dado que las empresas y los hogares continúan postergando el gasto a largo plazo. Por consiguiente, el comercio mundial, que es intensivo en cuanto a maquinaria y bienes de consumo duraderos, sigue siendo flojo. El repunte del crecimiento proyectado para 2020 es precario, y supone la estabilización de las economías de mercados emergentes y en desarrollo que están atravesando tensiones y avances hacia la resolución de las diferencias en torno a políticas comerciales.

Los riesgos para el pronóstico se inclinan principalmente a la baja, e incluyen nuevas tensiones comerciales y en el ámbito de la tecnología que perjudiquen el ánimo y frenen la inversión; un aumento prolongado de la aversión al riesgo que deje al descubierto una continua acumulación de vulnerabilidades financieras tras varios años de tasas de interés bajas; y una intensificación de presiones desinflacionarias que agraven las dificultades para el servicio de la deuda, restrinjan el margen de la política monetaria para contrarrestar las desaceleraciones y prolonguen más de lo normal los shocks adversos.

Las medidas de política tanto en el plano multilateral como nacional son cruciales para afianzar el crecimiento mundial. Las necesidades apremiantes consisten en reducir las tensiones comerciales y tecnológicas y despejar sin demora la incertidumbre en torno a los acuerdos comerciales (entre ellos el acuerdo entre el Reino Unido y la Unión Europea y la zona de libre comercio conformada por Canadá, México y Estados Unidos). Concretamente, los países no deben recurrir a los aranceles para influir en la balanza comercial bilateral, ni como reemplazo del diálogo con el fin de presionar a otros a efectuar reformas. La demanda final y la inflación se encuentran en niveles moderados, y por lo tanto una política monetaria acomodaticia es adecuada en las economías avanzadas, así como en las economías de mercados emergentes y en desarrollo en que las expectativas estén ancladas. La política fiscal debe equilibrar múltiples objetivos: suavizar la demanda según sea necesario, proteger a los vulnerables, reforzar el crecimiento potencial con gasto a favor de



Hazkundera ahuldu egiten bada oinarritzko eszenarioaren mailarekiko, politika makroekonomikoak moldakorragoak izan beharko dute, herrialdearen egoeraren arabera. Ekonomia guztietan, lehentasunak dira inklusioa handitzea, erresilientzia handitzea eta produktu potentzialaren hazkundera mugatzen duten faktoreei heltzea.

Ekonomia aurreratuetan, aurreikusten den hazkundera % 1,9 da 2019an eta % 1,7 2020an. 2019rako proiektzioa 0,1 portzentaje-puntu handiagoa da apirilean baino, batez ere Estatu Batuen hazkundera gorantz berrikusi direlako.

Garapen bidean eta garapenean dauden ekonomietan, aurreikusten da hazkunde tasa % 4,1 izatea 2019an eta % 4,7 2020an. 2019rako eta 2020rako, apirilera 0,3 eta 0,1 portzentaje-puntu baxuagoak dira urrenez urren, eskualde gehienek beherako errebisioen ondorioz.

3.2.- ESPAINIAR ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA 2018-2022 EPEALDIRAKO

Nazioarteko testuinguruan, dela maila globalean, dela Europa mailan, okertu egin da aurreko aurreikuspenekin alderatuta. Lehenik, ekonomia globala gehiago hoztu da, bai bi potentzia ekonomikoen arteko merkataritza tentsioengatik, bai Txina eta garapen bidean dauden beste herrialde batzuk ahuldu direlako. Nazioarteko organismo nagusien aurreikuspenei jarraikiz, espero da testuinguru horrek bere horretan jarraitzea hurrengo hiru hilabeteetan, 2020an arinki gora egiteko bidea hartu aurretik. Bigarrenik, Europako zonaldeak duen arazoa uste baino gehiago luzatu daiteke Alemaniako industriaren geldialdiaren ondorioz, Italiaren egoera finantzarioaren inguruan dauden ziurgabetasunen ondorioz eta Brexitaren auziaren luzapenaren ondorioz. Horrela, Europako zonalderako hazkundera % 1 izango litzateke, aurreko aurreikuspenak baino hamarren bat gutxiago.

Alabaina, beste faktore batzuek aldeko garapena izan dute, kanpoko galerak orekatuz. Politika monetarioak bere izaera zabaltzailea

reformas estructurales y garantizar la sostenibilidad de las finanzas públicas a mediano plazo. Si el crecimiento se debilita con respecto al nivel del escenario base, las políticas macroeconómicas habrán de tornarse más acomodaticias, dependiendo de las circunstancias del país. En todas las economías, las prioridades consisten en ampliar la inclusión, incrementar la resiliencia y abordar los factores que limiten el crecimiento del producto potencial.

En las economías avanzadas, se proyecta un crecimiento de 1,9% en 2019 y 1,7% en 2020. La proyección para 2019 es 0,1 puntos porcentuales más alta que en abril, debido principalmente a revisiones al alza del crecimiento en Estados Unidos.

En el grupo de economías de mercado emergentes y en desarrollo se prevé que la tasa de crecimiento sea de 4,1% en 2019, y que aumente a 4,7% en 2020. Los pronósticos para 2019 y 2020 son 0,3 y 0,1 puntos porcentuales más bajos, respectivamente, que lo señalado en abril, debido a revisiones a la baja en todas las principales regiones.

3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2018-2022

El contexto internacional, tanto global como europeo, se ha deteriorado con respecto a las anteriores previsiones. En primer lugar, el enfriamiento de la economía global se ha intensificado, tanto por las tensiones comerciales entre las dos principales potencias económicas como por el debilitamiento de China y de otros países emergentes. Según las previsiones de los principales organismos internacionales, se espera que ese contexto se mantenga en los próximos trimestres, antes de emprender una leve senda de recuperación en 2020. En segundo lugar, el bache que atraviesa la eurozona podría prolongarse algo más de lo previsto, como consecuencia del parón de la industria alemana, de las incertidumbres en torno a la situación financiera de Italia y del largo desenlace del Brexit. Así pues, el crecimiento para el conjunto de la eurozona sería del 1%, una décima menos que en las anteriores previsiones.

Sin embargo, otros factores han evolucionado favorablemente, compensando el deterioro externo. La política monetaria refuerza su



indartu du Europako Banku Zentralaren azken erabakien ondorioz –esku-hartze tipoak murriztea ziurrenik, banku maileguen kontuen operazioen erronda berri bat epe luzera (TLTRO III) y, baldintzen arabera, bono publikoen erosketen ziklo berri bat (Europako Banku Zentralaren APP programa)–. Espero da 10 urteko Espainiako bonuaren errentagarritasunaren eta Euriborraren maila murriztuak beren horretan jarraitzea ekitaldi honetan, eta 2020an eta 2021ean bakarrik igotzea pixka bat. Politika fiskalari dagokionez, gobernu berri batek har ditzakeen erabakiei buruzko informaziorik gabe, aurreikuspenek aurrekontu apur bat pro-ziklikoak ekartzen dituzte, aurreko aurreikuspenak aldatu gabe. Azkenik, petrolioaren prezioa aurreikusi baino apalago bat atzematen da.

Denarekin, 2019rako hazkunde aurreikuspenak bere horretan jarraitzen du % 2,2n. Horren arrazoia da kanpo sektorearen ekarpena behera aurreikusten dela. Hori demanda nazionalaren igoera txiki batek orekatzen du. Beraz, nazioartekoa kaltetzearen ondorioz, kanpo trukeak bi hamarreneko kenduko dizkio hazkundeari. Maiatzean, aurreikuspenek hamarreneko bat zioten. Ondorio bat da kontu korronteko balantzaren superabita nabarmen murriztuko dela. Alderantziz, demanda nazionalarentzat mesedeko dira prezio energetikoen moderazioak berekin dakartzan baldintza finantzarioak eta erosahalmena handitzea. Horren ondorioz, demanda nazionalak hazkundeari egiten dion ekarpena % 2,3 izango da. Nabarmentzen dira familien kontsumoa –enplegu sorrerari eta soldata errenten igoerari esker, eta erresidentzietan eta ekipamendu ondasunetan egiten den inbertsioari esker–.

Ekonomiaren dezelerazio gero eta azkarragoa 2020an eta 2021ean luzatuko da, eta hazkundea % 1,9 eta % 1,8 izango da hurrenez hurren. Barne demandak indar gutxiago izatea espero da bi urte horietan, familien aurrezpen tasarekin bat –kontsumoaren gastuan eragiten du horrek– eta gastu publikoaren zabalkunde apalagoarekin bat, hauteskunde zikloaren amaierarekin batera. Inbertsioak ere dinamismo apur bat galduko du.

Demanda nazionalaren eboluzio hau kanpo sektorearen hobekuntzarekin orekatu da neurri batean. Munduko eta Europako ekonomiaren erreperazioa, hala espero baita, pizgarri litzateke salmententzat kanpoko aldean

carácter expansivo tras las recientes decisiones del BCE –probable recorte de tipos de intervención, nueva ronda de operaciones a cuenta de préstamos bancarios a largo plazo (TLTRO III), y dependiendo de las circunstancias, un nuevo ciclo de compras de bonos públicos (programa APP del BCE)–. Se espera que los niveles reducidos de rentabilidad del bono español a 10 años y del Euribor se mantengan durante el presente ejercicio, y solo repunten ligeramente en 2020 y 2021. En cuanto a la política fiscal, a falta de información sobre las decisiones que pueda tomar un nuevo gobierno, las previsiones incorporan unos presupuestos ligeramente procíclicos, sin cambio con respecto a las anteriores previsiones. Finalmente, se anticipa un precio del petróleo más moderado de lo previsto durante el horizonte de previsión.

Con todo, la previsión de crecimiento para 2019 se mantiene sin cambios en el 2,2%. Este resultado procede de una revisión a la baja de la aportación del sector exterior, que se ve compensada por un mayor incremento de la demanda nacional. Así pues, como consecuencia del deterioro internacional, los intercambios con el exterior drenarán dos décimas de crecimiento, frente a una décima en las previsiones de mayo. Un corolario es que el superávit de la balanza por cuenta corriente se reducirá netamente. A la inversa, la demanda nacional se beneficia de las favorables condiciones financieras y del incremento de poder adquisitivo que facilita la moderación de los precios energéticos. Fruto de ello, la aportación de la demanda nacional al crecimiento se sitúa en el 2,3%. Destacan el incremento del consumo de las familias –gracias a la creación de empleo y al alza de las rentas salariales, así como de la inversión residencial y en bienes de equipo–.

La progresiva desaceleración de la economía se prolongará en 2020 y 2021, con un crecimiento del 1,9% y 1,8%, respectivamente. Se espera un menor impulso de la demanda interna para ambos años, en consonancia con la estabilización de la tasa de ahorro de las familias –que repercute sobre su gasto en consumo–, y una menor expansión del gasto público, coincidiendo con el fin del ciclo electoral. La inversión también perdería algo de dinamismo.

Esta evolución de la demanda nacional se compensaría en parte por un mejor comportamiento del sector externo. La recuperación esperada de la economía mundial y europea estimularía las ventas en el

hurrengo bi ekitaldietan. Bestalde, barne demandaren hazkunde apalago bate inportazioen kalterako litzateke (azken demandaren gaineko malgutasuna 1.3 bada).

Hazkunde tasa horiekin, eta lan produktibitateak pixka bat gora egiten badu, oraindik milioi bat lanpostu sortuko lirateke 2019-2021 aldian. Horrek langabezia % 11,0ra eramango luke aldi horren amaieran.

Soldaten igoera 2020an eta 2021ean ekitaldi honetan espero dena baino txikiagoa izango da, Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren eta funtzio publikoaren igoerengatik, baina azken urteetan izandako tasak baino handiagoa litzateke. Horrek, produktibitatearen hazkunde urriarekin batera, kostu laboral unitarioen igoera bat ekarriko du, azken aldian ikusitakoa baino handiagoa hori ere.

Azkenik, ekonomiaren mantsotzeak defizit publikoaren murriztapenean egindako aurrerapenak galgatuko ditu. Aurten, aurreikuspena da BGParen % 2,2, helburutik lau hamarreneko gora, eta 2021ean % 1,7 espero da. Zor publikoa BPGaren % 94,2 izango da oraindik urte amaieran.

exterior durante los dos próximos ejercicios. Por otra parte, el menor crecimiento esperado de la demanda interna frenaría las importaciones (bajo el supuesto de una elasticidad sobre la demanda final del 1.3).

Con esas tasas de crecimiento, y bajo el supuesto de un ligero repunte de la productividad del trabajo, todavía se crearían más de 1 millón de puestos de trabajo durante el trienio 2019-2021, lo que permitiría una disminución de la tasa de paro hasta el 11,0% al final de ese periodo.

El crecimiento de las remuneraciones salariales en 2020 y 2021 será inferior al esperado para el ejercicio actual, influido por el incremento del salario mínimo interprofesional y de los salarios en la función pública, pero será superior a las tasas observadas en los últimos años. Esto unido al escaso crecimiento de la productividad dará lugar a un crecimiento de los costes laborales unitarios superior también al registrado en la etapa más reciente.

Finalmente, la ralentización de la economía frenará los progresos en la reducción del déficit público, desde el 2,2% del PIB previsto para este año, cuatro décimas por encima del objetivo, hasta el 1,7% en 2021. La deuda pública todavía alcanzará el 94,2% del PIB a finales de ese año.

3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak
Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2018	2019	2020	2021	2022
BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ)/ PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL)					
Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	2,3	1,9	1,6	1,5	1,4
Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	2,1	1,9	1,5	1,4	1,3
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	5,3	4,0	3,5	3,3	3,1
Barne eskaria/ Demanda interna	2,9	2,3	1,9	1,8	1,8
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	2,3	2,7	2,8	2,7	2,6
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	3,5	3,1	2,9	2,8	2,7
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	-0,3	-0,1	0,0	0,0	0,0
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	2,6	2,2	1,9	1,8	1,8
PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %)					
BPGaren deflatoarea / Deflactor del PIB	1,6	1,2	1,4	1,5	1,5

LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO					
Enplegua, guztira (bariaz. %tan) / Empleo Total (variación en %)	2,5	2,1	1,8	1,7	1,6
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	15,3	13,8	12,3	11,0	9,9

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares.

(2) BPGaren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak euskal ekonomiarako aurkeztutako eszenario makroekonomikoak hainbat egoera hartzen ditu oinarri gisa: munduko ekonomiaren bilakaera, euroak dolarren aldean duen kanbio tasa, deflaktoreak, eta Europako Banku Zentralak aurreikuspenetan aztertutako epealdirako ezartzen dituen interes tasak.

3.3.- GOBIERNO VASCO

El escenario macroeconómico de la economía vasca presentado por la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco se basa en unos supuestos relativos a la evolución económica mundial, al tipo de cambio del euro frente al dólar, a los deflatores y a los tipos de interés que establezca el Banco Central Europeo para el horizonte temporal contemplado en las previsiones.

3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	II tri./hir. 2019	III tri./hir. 2019	IV tri./hir. 2019	2019	2020
BPG / PIB	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Azken kontsumoa / Consumo final	2,2	2,0	2,1	2,1	1,8
Kontsumo pribatua / Consumo privado	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Kontsumo publikoa / Consumo público	1,8	1,8	1,9	1,9	1,7
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	3,9	3,7	3,7	3,9	3,7
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	2,7	2,5	2,5	2,6	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	-0,4	-0,2	-0,3	-0,3	-0,4
BPGaren deflatorea / Deflactor PIB	1,4	1,5	1,7	1,4	1,8
Enplegua / Empleo	1,8	1,7	1,4	1,7	1,3
Langabezia tasa / Tasa de paro	10,0	9,7	9,7	9,9	9,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAerako ekonomia aurreikuspenak eguneratu ditu, ingurune makroekonomikoaz eskuragarri dauden datuak eta EAEko ekonomiaren beraren kointura adierazleak erabiliz. Izan ere, 2019rako espero den batez besteko hazkunde tasa %2,3an kokatzen da orain,

Las previsiones económicas del País Vasco han sido actualizadas por la Dirección de Economía y Planificación a partir de los datos disponibles sobre el entorno macroeconómico y los indicadores coyunturales propios de la economía vasca. Así, para el año 2019 la tasa de crecimiento medio esperada se sitúa ahora



aurreko hiruhilekoan argitaratu zen emaitzaren aldean hamarren bat altuagoa den tasa bat. Orobat, 2020an gehikuntza tasa zertxobait apalduko dela eta %2,0ra iritsiko dela zenbatetsi da. Eusko Jaurlaritzak 2019rako egin duen aurreikuspen eguneratua erdiko eremuan kokatzen da EAEko ekonomiarentzat beste erakunde batzuek egin dituzten aurreikuspenen artean. Beheko muturrean, Hispalink-ek eta Cempredek kalkulatu duten %2,1 hori kokatzen da eta goiko muturrean Funcasek kalkulatu zuen %2,7a dago. 2020 urterako, berriz, hazkunde aurreikuspenak Cemprederen %1,7aren eta BBVAren %2,0aren artean kokatzen dira.

Barne eskaria oraindik EAEko ekonomiaren hazkundearen bultzagile nagusia izango da. Agregatu horrek 2,6 puntu ekarriko dizkio BPGaren gehikuntzari 2019an eta 2,4 puntu, berriz, 2020an. BPGak erakutsi duen moteltzea barne eskariaren osagai guztien bizitasun motelagoan islatzen da. Familiek kontsumoan eginiko gastua lan merkatuaren bilakaera onean, kreditua lortzeko baldintza egokietan eta aberastasun efektuan oinarrituko da. Hala ere, kontsumo pribatuaren hazkundera geldia gutxi da, erostekak egiteko igurikimenak neurritsuagoak izango direlako, ekonomia orokorraren etorkizunaz horren baikorrak ez direlako. Beste aldetik, kapital eraketa gordina agregatu dinamikoena izango da, epe laburrean enpresek igurikimen onak edukiko dituztelako eta finantzaziorako baldintzak egokiak izango direlako. Nazioarteko merkatuen hazkunde mugatuaren ondorioz, kanpo saldoak ekarpen negatiboa egingo dio hazkundeari 2019an zein 2020an.

Jarduera adarrak aztertuta, sektore guztiek, lehen arloak izan ezik, EAEko balio erantsiaren hazkundeari ekarpen positiboak egingo dizkiotela aurreikusten da. Nekazaritza eta arrantza jarduerak narriadurako norabidea erakutsiko dute kontuan hartu diren bi urteetan. Gainontzeko sektoreetan, bizitasun handia espero da, baina moteltzeko testuinguru batean. Izan ere, industriaren gehikuntza tasa, hurrenez hurren, %1,3an eta %1,8an kokatuko da 2019an eta 2020an. Eraikuntzak izango ditu hazkunde tasa altuenak eskaintzaren ikuspegitik, suspertze iraunkor batekin. Zerbitzuek sendotasuneko zantzuak erakutsiko dituzte eta %2,5eko igoera lortuko dute, batez beste, 2019an, datorren urtean %2,2aren inguruan kokatzeko.

en el 2,3%, una tasa que supone una revisión al alza de una décima respecto a la publicada el trimestre anterior, y se prevé que el avance se ralentice ligeramente hasta el 2,0% en 2020. La predicción actualizada del Gobierno Vasco para el año 2019 se sitúa en la zona intermedia del intervalo de previsiones elaboradas por otras instituciones para la economía vasca. En el extremo inferior, se encuentra el 2,1% calculado por Hispalink y Cemprede y en el extremo superior aparece el 2,7%, tasa elaborada por Funcas. Para el año 2020, las perspectivas de crecimiento fluctúan entre el 1,7% de Cemprede y el 2,0% del BBVA.

La demanda interna seguirá siendo el motor del crecimiento de la economía vasca. Este agregado aportará al crecimiento del PIB 2,6 puntos en 2019 y 2,4 puntos en 2020. La desaceleración mostrada por el PIB se refleja en una pérdida de dinamismo de todos los componentes de la demanda doméstica. El gasto en consumo de los hogares se apoyará en el buen tono del mercado laboral, las buenas condiciones crediticias y el efecto riqueza. No obstante, se produce una ralentización en la expansión del consumo privado con planes de gasto basados en perspectivas más moderadas respecto a la evolución económica general. Por otra parte, la formación bruta de capital será el agregado más dinámico, con unas buenas expectativas empresariales en el corto plazo y el mantenimiento de favorables condiciones de financiación. La limitada expansión de los mercados internacionales provocará una contribución negativa al crecimiento por parte de la demanda externa en 2019 y 2020.

Analizando las ramas de actividad, se esperan aportaciones positivas al crecimiento del valor añadido vasco de todos los sectores productivos, con la única excepción del fluctuante sector primario. La actividad agraria y pesquera mostrará un perfil de deterioro en los dos años contemplados. En los demás sectores, el dinamismo será intenso, aunque enmarcado en un contexto de moderación. Así, el incremento de la rama industrial se situará en el 1,3% y el 1,8% en 2019 y 2020, respectivamente. La construcción mostrará los crecimientos más elevados dentro de la oferta productiva, con una reactivación sostenida. El sector de servicios mostrará signos de fortaleza y cerrará 2019 con un avance medio del 2,5%, para continuar con crecimientos en torno al 2,2% en 2020.



Lan merkatuan, oraingo aurreikuspenek %1,7an uzten dute 2019ko enplegu sorrera eta %1,3an, berriz, datorren urtekoa. Tasa horiek adierazten dute 16.000 lanpostu inguru sortuko direla aurtan eta 12.500 enplegu gehiago 2020an. Langabezia tasari dagokionez, 2019ko batez bestekoan %9,9ra murriztuko dela eta 2020an %9,7ra jaitsiko dela aurreikusten da. Hori horrela izanda, 2019ko hirugarren hiruhilekotik aurrera langabezia tasa %10,0aren azpian kokatuko dela eta mantenduko dela espero da.

3.4.- GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2020an inguruko ekonomien antzeko hazkundera espero da: barne produktu gordina %2,0 inguru haziko da termino errealetan, eta %3,9 inguru termino korranteetan.

En el entorno laboral, las actuales perspectivas establecen el aumento del empleo en 2019 en el 1,7% y para 2020 la tasa de crecimiento prevista es del 1,3%. Estas tasas equivalen a una creación en torno a 16.000 empleos en 2019 y de cerca de 12.500 empleos en 2020. Respecto a la tasa de paro, se estima que se reducirá al 9,9% en términos medios para 2019 y que llegará hasta el 9,7% en 2020. Así, a partir del tercer trimestre de 2019 se espera que la tasa de desempleo se sitúe y se mantenga por debajo del 10,0%.

3.4.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2020 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 2,0% en términos reales y del 3,9% medido en términos corrientes.